

TOLOSA / Gaur da Haur Liburuaren Nazioarteko eguna

Ospakizun honen harira ipuin kontalaria izango da 12:00etan Errota liburutegian

E. EZEIZA

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da gaur. Horregatik, egun berezi honetan ohi baino presentzia handiagoa izango du haur eta gazte literaturak.

Ospakizun honen harira Sirenita izeneko erakusketa ikusgai izango da apirilaren 23ra arte. Bestetik, gaur 12:00etan, Errotan, 5 eta 10 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontaketa izango da. Bertan, El secuestro de la bibliotecaria izeneko istorioa kontatuko dute. Gainera, maileguan liburua hartzen duten haurrei piruleta bana oparituko diete.

Mundu mailan urtero ospatzen da egun hau. IBBY Haur Liburuarentzako Nazioarteko Erakundeak antolatzen du hori, Christian Andersen idazle daniarraren jaiotza oroitzeko. Urtero, erakunde horretako estatu bat arduratzen da haurrei zabaltzeko beharreko mezua eta egitaraua egiteaz.